

Uskartze: Jasokundearen eliza

Harriz egindako eraikin erromanikoa (1200 urtea), zirkulu erdiko buruko batez eta bi tarteko nabe batez osaturikoa. Nabea fajoidun kanoi ganga batek eta burukoa labe ganga batek estaltzen dute. Eliza-ataria zeharkatuta, elizara puntu erdiko arkua duen Epistolaren aldean dagoen atetik sartzen da. Atean dagoen tinpanoa krismoi batek apaintzen du. Kanpandorre garaia oinean dago. Erretaula nagusia, XVIII. mendearren lehenengo erdialdeko mazoneria barrokoa duena, lehenagotik erabiliak izan ziren materialein egina dago. Bankuz, bi pisuko hiru kalez eta atikoaz osatua dago. Erdiko kalean eskulturak daude eta albokoetan oholen gaineko pinturak. Bankuaren erdian erliebe polikromatuz apaindua dagoen bi pisuko sagrarioa dago, tankera erromanista duena: Kristo berpiztua San Pedro eta San Pabloren artean behealdean eta San Juan Bautista, San Bartolome eta San Andresen artean goiko aldean. Sagrarioaren gainean Jasokundearen irudia dago eta atikoan mazoneriaren garaiko Gurutzefikatua. Alboko kaleak hornitzen dituzten pinturak (XVI. mendeko bigarren erdialdekoak), bermargotuak direnak, beheko pisuan ezkerretik hasita hauexek dira: Santa Barbara eta Santa Ageda. Goi solairuan San Joakin eta Amabirjina eta Alejandriako Santa Catalina. Presbiterioan ezkerraldean hornazinan Haurrarekin dagoen Amabirjinaren irudi erromanista bat dago (XVII. mendeko lehenengo erdialdea), baliteke erretaula nagusian dagoen hainbeste aldiz margotzean faltsuztatuta gelditu den sagrarioaren lantegi berekoa izatea. Alde bereko orman orma-pintura gotikoen hondarrak daude (XV. mendeko bigarren erdialdea), Azken Afaria erakusten dutenak, mahaiaren zati bat eta apostolu batzuk bereiziz.

Uscarrés: Iglesia de la Asunción

Es un edificio románico (año 1.200) realizado en piedra, con nave única de dos tramos y cabecera semicircular. Se cubre con bóveda de cañón con fajones en la nave y bóveda de horno en la cabecera. Se accede al interior por el lado de la epístola, con puerta de arco de medio punto con tímpano ornado con crismón y pórtico previo a la entrada. La torre campanario muy elevada se encuentra a los pies. El retablo mayor, de mazonería barroca tardía (1^a mitad del siglo XVIII) presenta materiales reutilizados de fecha más antigua. Consta de banco, tres calles

de dos pisos y ático, con esculturas en la calle central y pinturas sobre tabla en las laterales. En el centro del banco figura el sagrario, de dos pisos, de estilo romanista, decorado con relieves policromados: Cristo resucitado entre San Pedro y San Pablo, en la parte baja, y San Juan Bautista entre San Bartolomé y San Andrés en la superior. Encima del sagrario aparece la imagen de la Virgen en su Asunción y sobre ella, en el ático, el Crucificado, de la época de la mazonería.

Las pinturas que decoran las calles laterales (2^a mitad del siglo XVI), repintadas, son, comenzando por la izquierda en el piso inferior: Santa Bárbara y Santa Águeda. Y en el superior, San Joaquín y la Virgen y Santa Catalina de Alejandría. En el lado izquierdo del presbiterio, en hornacina, hay una talla de la Virgen con el Niño, de carácter romanista (1^a mitad del siglo XVII), tal vez del mismo taller que el sagrario del retablo mayor, muy adulterado por repintes. En el muro de la misma zona se advierten restos de pinturas murales góticas (2^a mitad del siglo XV), con la representación de la Última Cena, distinguiéndose parte del apostolado y de la mesa.